



Zabalbide 26, behea. 48006 BILBO  
Tel.:94 432 04 45  
[www.urtxintxaeskola.eus](http://www.urtxintxaeskola.eus)  
[partehartzea@urtxintxaeskola.eus](mailto:partehartzea@urtxintxaeskola.eus)



## 1. SARRERA

Deustuko Ikastolako Guraso Elkarteak parte hartze prozesu bat burutu zuen 2012-13 ikasturtean, hurrengo zelarik abiapuntua:

Deustuko Ikastolako Guraso Elkartean egoera eta gurasoen parte hartzea aztergai zuen prozesuaren helburu nagusia, Ikastolak izan zitzakeen arazo eta hutsune nagusienak identifikatzea eta momentuko kudeaketak zeukan idarguneetatik ikastea zen.

10 urte inguru pasata, berriz ekin nahi izan zaio gaiari eta bide honetan Bizkaiko Urtxintxa eskolak, Guraso Elkarteko juntakideekin batera diseinatutako prozesua garatu eta dinamizatu du.

## 2. PROZESUAREN AZALPENA ETA HELBURUAK

### PROZESU OROKORRA

Guraso Elkarteak partaidetzazko hausnarketa prozesu bat egitea erabaki zuen pasa den otsailean. Urtxintxa Eskolarekin harremanetan jarri eta helburuak finkatuta, prozesuaren diseinuari ekin zitzaion.

Prozesuak, hezkuntza-komunitate osoaren beharrei erantzungo dien Guraso Elkartearen etorkizuna erabakitzeko beharrezko informazioa biltzea izan du helburu nagusia; Guraso Elkartean hartu beharreko norabidea zehaztea eta helburuak, funtzionamendua eta parte hartzeko eredia aztertzea.

“NOLAKO GURASO ELKARTEA NAHI DUGU? Galderari erantzuteko, dinamika parte hartzaileak proposatu eta garatu ditugu honako faseetan bereiztuta:

1. Talde eragileko Saioa
2. Familia aktiboen Saioa
3. Familientzako galdetegia
4. Familiekin saio parte-hartzailea
5. Talde eragileko itxiera bilera
6. Eraitzen jakinarazpena: Prozesuaren emaitzak sozializatzea
7. Erabakia hartzea: Apirila amaieran Guraso Elkartearen eredia erabakitzea

## 2. PROZESUAREN GARAPENA

### TALDE ERAGILEA

Lehen urratsa parte hartze prozesua definitzeko talde eragilearen bilera bat egitea izan da. Guraso Elkartearen egungo egoeraren azalpena, momentuko beharrak eta egun dituen helburuak, denbora eta baliabideak aintzat hartuta, zer hausnartu nahi den zehaztu eta baita hausnarketa nola, non, norekin eta noiz egin nahi diren ere.

Talde Eragileko lehen bileraren akta 1. Eranskinean atxikita dago. Bertan, GE-aren egoera eta Urtxintxa Eskolaren lehen proposamenaren arteko kohesioak aztertu ostean, prozesuaren faseak zehaztu eta kronograma bat osatu genuen.

	OTSAILA			MARTXOA			APIRILA
1. Talde Eragilearen bilera	Otsailak 2						
2. Kanpainaren diseinua		Otsailak 14					
3. Familia aktiboen saioa			Otsailak 22				
4. Kanpainaren zabalpena			Otsailak 23				
5. Familientzako galdetegia				Martxoak 1 jaso			
6. Familien saioa					Martxoak 6		
7. Talde Eragilearen itxiera bilera						Martxoak 14	
8. Emaitzen jakinarazpena (Guraso Elkarateak)							
9. Erabakia hartzea (Guraso Elkarateak)							

### PROZESUAREN KANPAINA

Guraso Elkartean aspaldidanik ikusi den arazo bati aurre egiteko prozesu honen berri emateko, lelo edota irudi bat eratzeko beharra ikusi da. Hasieran proposatutako komunikazio kanpainerako bideo eta irudien jasoketa kolektibo bat planteatzen zen, baina denbora eta baliabide aldetik justu ibilita, prozesuaren zabalpena edo aurkezpena zerbait bisuala eta euskarri batean aurkeztekoa izan behar zela ebatzi zen. Horretarako, "SOS GURASO ELKARTEA" leloa daukan eskuorria eratu genuen.

Kanpaina otsailak 22an egindako "familia aktiboen saioa"-n aurkeztu zen eta hurrengo egunean ikastolako gainontzeko familiei zabalduko zitzaien eskuorria ere banatu genuen. Euskarriak prozesuaren leloa, helburuak, datak, epe muga, parte hartzeko gonbitea eta familientzako inkesta bildu ditu.

Horrekin batera, hurrengo saioetan ikusgarri jartzeko kartelak ere egin izan dira.

## Zein eredu nahi dugu Guraso Elkartearentzat datozen urteetarako?

Gure seme alabentzako kalitatezko hezikuntza sistema baten alde inplikaturako kolektiboa da Deustuko Ikastola Guraso Elkarte (GE). Ikastola sortu zenetik printzipio bat argi izan dugu: **ikas komunitatea osatzen dugun kide guztion parte hartze aktiboa sustatzea.**

Parte hartzeko modua eta motazioa atiko aldatu dira lehen urteetatik, eta egiaztatzen da familien ekarpena bokiagoa dela. Hala ere, uste dugu gurasoen parte-hartzea funtsezkoa dela seme-alaben hezikuntza-aukerak hobetzeko. ZU behar zaitugu!

Bereskuratu dezagun parte-hartzearen kultura eta gurea egin dezagun, guztiona.

GEri, partaidetzako hausnarketa-prozesu bat egitea erabaki dugu, hezikuntza-komunitate osoaren beharrei erantzuneko dien elkartearen etorkizuna erabakitzeko. Zure eskuetan daukaguna prozesuan parte hartzeko gonbidapena da.

Helburua GEri hartu beharreko norabidea zehaztea eta helburuak funtzionamendua eta parte hartzeko ereduak aztertzea izango da.

Notako GE nahi dugun galderari erantzuteko, datozen asteetan garatu beharreko dinamika parte-hartzaile bat proposatzen dugu, eta, lanaren ondoren, datorren ikasturteik aurrera aplikatuko diren erabakiak hartzea.

### PARTHE-HARTZE PROZESUAREN EASEAK

**Inkesa familiei:** otsailaren 23tik martxoaren 1era bete inkesta QR honen bidez:



**Saio parte-hartzailea:** martxoaren 6an, 17:30etan ikastolan. Hautzaindegi zerbitzua jarriko da behar duten familientzat.

**Emaitzen jakinarazpena:** martxoan eta apirilaren hasieran, iortutako datuak eta ekarpenak landuko dira.

**Erabaki hartzea:** apirilaren amaieran erabakiko da GE ereduak



Prozesuan parte hartu, hausnartu, zure iritzia eman eta erabaki!

### ZER BEHAR DOGU GURASO ELKARTEAN?

Kultur elimenak - parte hartzea - eskara - iluzio - indarra - printzipioak  
Komunitatea - eskola bicia - elkarlana - zerbitzuak - gardentasuna ...

Baina, batez ere, behar doguna da: Denon artean egitea bidea, etorkizuna, komunitatea.

ZU BEHAR ZAITUGU!



### GURASO ELKARTEA SOS

Nondik gatoz? Nora goaz?  
5 urte barru zer?

PROPOSATU, EZTABAIDATU  
**ERABAKI**  
PREST AHAL ZAUDE?

### GURASO ELKARTEA SOS

Nondik gatoz? Nora goaz?  
5 urte barru zer?

### ¿QUÉ NECESITAMOS EN LA ASOCIACIÓN DE PADRES Y MADRES?

Iniciativas culturales - participación - eskara - ilusión - principios educativos - comunidad - escuela vivia - colaboración - servicios - transparencia...

Pero sobre todo, lo que necesitamos es: Hacer juntos el camino, el futuro, la comunidad.

¿TE NECESITAMOS!



## FAMILIA AKTIBOEN SAIOA

Otsailak 22an Guraso Elkartearen aktiboki parte hartzen duten familiekin eman genion hasiera prozesuari. Saioaren helburuak honakoak izan ziren:

- Guraso Elkartearen aktiboki parte hartzen duten familiei martxan jarritako prozesuaren berri ematea
- Familia aktiboen iritzia jasotzea
- Guraso Elkartearen kideen arteko konfiantzazko harremanean sakontzea
- Orain arteko ibilbide eta harremanaz hitz egitea
- Aurrera begirako beharrak identifikatzea

Berlaratutakoek, familiei helarazitako euskarria izateaz gain, “zer saltsa da hau?” txartela ere izan zuten saioaren inguruko informazioa izateko.

## GURASO ELKARTEA

### SOS

Nondik gatoz?  
Nora goaz?  
5 urte barru zer?

PROPOSATU, EZTABAIDATU  
**ERABAKI**  
PREST AHAL ZAUDE?



## GURASO ELKARTEA

### SOS

¿De dónde venimos?  
¿A dónde vamos?  
¿Dentro de 5 años, qué?

- **Zer da saltsa hau?** Hau, parte hartze prozesu bat da. Prozesu honetan hainbat gauza eztabaidatu eta proposatu ditugu, denon artean, Guraso Elkartearen etorkizunaren inguruko erabakiak hartzeko. Gauza txikienetik hasi eta helburu estrategikoetara arte. Eta batez ere, funtzionatzeko modu hau GE-aren egunerokoa eta erabaki guneetan zelan ezarri ahal den aztertu eta adostuko dugu.
- **Zertara etorri naiz?** Gaurko bileraren helburua hau da: Elkar ezagutzea eta GE-aren egoeraren inguruan hausnartzea. Zer pentsatzen dugun esan eta elkar entzutera etorri gara. Esandako guztiak dira garrantzitsuak eta errespetagarriak.
- **Zer aterako dut hemetik?** Gaur, taldeetan elkartuko gara, bakoitzak bere iritzia eman eta denonak jasotzeko. Gero, iritzi guztiak batu eta denon aurrean aurkeztuko ditugu, antolatuta. Horrela, guztion artean zelako ideiak plazaratu diren ikusi ahal izango dugu.
- **Gaurkoaren ondoren, zer?** Datozen dinamikak aurkeztuko ditugu; familientzako galdetegia eta martxoak 6-ko familien saioa.




Guraso Elkartearen egungo egoera aurkeztu eta lan taldeetan garatzeko dinamika bati ekin zitzaion. Talde bakoitzak adostu beharreko arauak eta bantu beharreko ardurak eta hausnarketarako gakoak biltzen zituen papera izan zuen. Hausnarketa eta eztabaida bideratzeko, galdera batzuk jasota zituen gidoi bat izan zuten hasierako proposamen bezala, baina helburua elkarrizketa askea sustatzea eta bakoitzak nahi eta behar duena adierazteko aukera ematea izan zen. Ondokoak dira hausnarketarako galderak Guraso Elkartearekin zuzenki lotura daukaten alderi ezberdinetan bereiztuta. Taldeetan egindako lanketan antzemandako beharretatik abiatuta, taldearen iritzi eta ekarpenen aurkezpen txiki bat egin zen asanblada eran. Saioan jasotakoa 2. Eranskinean dago.

### 1. Elkartearekiko atxikimendua:

- Nola baloratzen duzu GE-arekiko izan duzun atxikimendua?
- Aurrera begira, zuen atxikimendua sendoagoa izatea nahiko zenukete?
- Zer beharko zenukete GE-arekiko lotura sendoagoa izateko?

### 2. Ibilbidea eta ekarpena:

- 
- Baliagarriak egin zaizkizue azken urteetan GE-tik bideratutako zerbitzu eta jarduerak?
  - Horiek antolatzeke eredu egokia al da?
  - Zer behar du GE-ak?
  - Zeintzuk izan beharko lirateke hurrengo erronkak? Nola bideratu?
3. Funtzionamendua:
- Ondo ezagutzen al duzue GE-ren funtzionamendua?
  - Funtzionamendu horretan non ikusten zarete zuek? Ardura gehiago hartu beharko zenituzkete?
  - Zein ardura banatu behar dira GE-n lana ondo egiteko?
  - Zenbatero aldatu behar dira ardura hauek?
  - Funtzionamendu orokorrari dagokionez, zenbat bilera edo lan saio egin beharko liratezke?
  - Zein modutan jaso daitezke familien iritzia eta ekarpenak?
4. Parte hartze aktiboa:
- Zein ekarpen egiten dute familiek GE-n?
  - Nola ulertzen dut nik parte hartzea?
  - Zer behar da familiek parte hartzeko? Zein baldintza behar ditugu parte hartzeko?
  - Nortzuk parte hartu beharko lukete GE-n?
  - Zein bide irekiko zenuke familien parte hartzea sustatzeko?
  - Nola erakarriko zenituzke familiak?

## FAMILIENTZAKO GALDETEGIA

Urrats garrantzitsuenetarikoa bat, familientzako galdeategia izan da. Izan ere, Guraso Elkartearen etorkizunaren inguruko erabakiak hartzeko ezinbestekoa da gurasoen iritzia eta parte hartzea izatea.

## DEUSTUKO IKASTOLAKO GURASO ELKARTEA

Kaixo familia!

Deustuko ikastolako Guraso Elkartearen etorkizunari begira jarri gara eta honen inguruko erabakiak hartu aurretik, hausnarketa prozesuan behar zaitugu. Gure seme alaben heziketarako aukerarik onenak ahalbidetzeko **ZU behar zaitugu!**

Zuk, guraso, familia, zaintzaile... eta hezkuntza komunitateko kide bezala, badaukazu zer esanik ere! Horregatik, bost minututan erantzuteko galdeategi bat prestatu dugu martxan jarritako prozesurako markatu ditugun helburuak zurekin konpartitzeko eta izan ditzakezun bestelako ekarpen eta zalantzak jasotzeko ere.

Berreskuratu dezagun parte hartzearen kultura eta egin dezagun gurea, guztiona. Zer behar duzu horretarako?

Mila esker!

3. eranskinean Familientzako galdetegiaren emaitzak jasota daude, baina hona hemen aipamen orokorrak:

Martxoak 6rako 156 familien erantzunak jaso ziren. Galdetegia erantzun zuten pertsonetatik ia %80a emakumezkoak izan ziren, agerian geratzen da zaintza lanen pisua eta hezkuntzarekin zerikusia daukaten gaiak emakumezkoen gain geratzen dela.




Galdetegian parte hartutako 134 familia (%85,9a) Guraso Elkarteko bazkide dira, nahiz eta badagoen familiaren bat edo beste ez dakiela ziur bazkide den edo ez. Bazkide izateko moduz eta kuota ordaintzen inguruko zalantzak agertu ziren, izan ere, familiaren batek ez dauka ziur GE-ko bazkide den ala ez, ezta nola bazkide izan behar den ere.

Hala ere, bazkide diren familiek, honako bazkide izateko honako arrazoiak azpimarratu zituzten:

- Seme-alaben hezkuntza inplikatzeko
- Guraso Elkartean horren lorpenen duen garrantziagatik
- Familientzako daukan onurengatik


Bestalde, nahiz eta galdetegian parte hartu izan zuten familien gehiengo GE-ren bazkide izan, gehiengo handi batek ez du zuzenean Guraso Elkartean ezta honen kudeaketan parte hartzen. Arrazoiak hiru multzotan bereiztu daitezke;



Arrazoi horiez gain euskara ez jakitea aipatu izan da, baita familia askoren motibazio falta ere.

Argi geratu zen familiek beharrezkoa ikusten dutela Guraso Elkartean lana, batez ere, gehiengoan iritziz, honako funtzioez arduratzen delako:

- Hezkuntza proiektuaren ekarpenak eta jarraipena
- Ikastolaren antolamenduaren kudeaketa bideratzea
- Eskola herrikoia bultzatzea
- Gurasoen lana eta interesa bideratzea
- Zerbitzuak ematea
- Eusko Jaurlaritzaren kudeaketatik at dauden gaiak antolatzea eta kudeatzea




Familien ia %85ak uste du GE-ak kudeatzen dituen jarduera eta zerbitzuekin, familien beharrak asetzen direla. Bestalde, familiek asetu gabeko beharrik daukaten galdetean, honakoak izan ziren gehien errepikatutako erantzunak:

- Txikientzako eta nerabeentzako jarduerak
- Asteazkenetan beranduago irtetea
- Jantokia berreskuratzea
- Gabon eta aste santuetarako eskaintza
- Psikologoa
- Hizkuntzak
- Errefortzu akademikoa
- Informazio elebiduna
- Irakasleekin bilerak egiteko erraztasunak

Behar horiek asetzeko eta hasieran zehaztutako funtzioak garatzeko, %78-k ezinbestekoa ikusten du familien inplikazioa, baina erdiak baino gehiagok ez daki Guraso Elkarteak eskaintzen dituen zerbitzu eta jarduerak nork ezta nola kudeatzen dituen ezjakintasuna aldagai nagusia bilakatuz.

Gauzak horrela, egungo egoerari erreparatuz, Guraso Elkartearen parte hartzen duten bolondresekin (gutxienez galdetegia erantzun duten %22a) zerbitzu eta jarduerak eskaintzea jasangarria den ala ez galdetean, erdiak baino gehiagok, "ez dakit" erantzun zuten eta bakarrik %8 batek baietz.



Jasangarritzat hartzen ez den sistema kontutan izanik eta Guraso Elkartearen etorkizunari begira jarrita, kanpo enpresa bat kontratatzearen aukera planteatu zen, baina hemen %30a bakarrik legoke prest horri aurre egiteko kostu ekonomiko handiagoa izateko. Familien %40a baino gehiagok ezezkoa erantzun zuten.



Honen aurrean, galdetegian parte hartu zuten 73 familiek etorkizun hurbilean Guraso Elkartearen modu aktiboan parte hartzeko nahia adierazi zuten.

## FAMILIEN SAIOA


Guraso Elkartetik, ikastolako familia guztien ikuspuntua ezagutu nahi izan dute elkartearen egungo egoeraz eta etorkizunaz hausnartzeko eta dagozkion erabakiak elkarrekin hartzeko. Horretarako, galdetegiaz gain, martxoaren 6an ikastetxean bertan egindako saiora gonbidapena luzatu zitzaizen familia guztiei.

Saioaren helburuak honakoak izan ziren:

- Guraso Elkartearen aurkezpena egitea familiak kokatzeko eta hasieratik gutxiengo informazioa izateko
- Prozesuaren baitan emandako pausuak aurkeztea
  - o Familia aktiboen saioa
  - o Galdetegien emaitzak
- Etorkizunerako GE-ren ereduaren inguruko erabakiak hartzen hastea
- Partaidetza sustatzea eta ardurak hartzea



Guraso Elkarteak, ikastolako familien seme alabentzako kalitatezko hezkuntza sistema baten alde inplikaturako kolektiboa dela azaldu zen. Mikeldik egungo GE-ko kudeaketa organigrama azaldu zuen eta GE-ak funtzionatzeko daukan modua eta baita azpizaldeen aurkezpen txiki bat.



Organigramaren baitan, parte hartzea izeneko organo edo foro bat dago, eta izan ere, hori da, Guraso Elkarteak, ikastola sortu zenetik argi izan duen printzipio bat; Ikas komunitatea osatzen duten kide guztien parte hartze aktiboa sustatzea.

Zoritxarrez, parte hartzeko modua eta motibazioa asko aldatu dira ikastolaren sorreratik, eta egiaztatu da familien ekarpena txikiagoa dela. Hala ere, galdetegian islatzen den bezala, familiek uste dute gurasoen inplikazioa eta parte hartzea funtsezkoak direla haur, nerabe eta gazteen hezkuntza aukerak hobetzeko.


Urtxintxatik ere, familiei zer nahi duten galdetze hutsa ez dugu parte hartzea bezala ikusten. Elkarrekin Guraso Elkarte bezala zer behar duten pentsatzea izan daiteke abiapuntua batera eraikitzen ikasten hasteko. Hau da, zerbaitetan parte hartzetik zerbaiten parte izatera pasatzea.

Horrek, harremanak izateko modu berriak jorratzea eta botere harremanak iraultzea ere suposatzen du. Izan ere, parte hartzea berezko eskubide bat da, norberari zor dioguna. Hala ere, ez da nahikoa izango parte hartzeko eskubidea aldarrikatzea. Parte hartzea bera praktikara eramatea ezinbestekoa da, horretarako testuinguru egokiak sortuz.

Parte hartzen ikasteko modu bakarra dago; parte hartuz! Baina, parte hartzeko, NAHI izan behar da, AHAL izan behar da eta JAKIN egin behar da.

- NAHI: Motibazio eta beharretatik abiatuta
- AHAL: Gonbidatuak eta babestuak izan behar gara, metodologiak egokituta
- JAKIN: Informazioa eta tresnak izatea

Parte hartzeko hiru baldintzak bermatzea izan behar da apustua.



Saioari jarraipena emateko, GE-ren batzorde edo lan esparruetan oinarrituta talde ezberdinetan banatzea planteatu zen, bertaratutako pertsona bakoitzak bere nahi eta interesen arabera talde bat aukeratzeko. Taldeak honela banatu genituen.



Talde bakoitzean batzorde horretako egungo arduradunak egon ziren lan esparru horretan egiten denaren berri emateko eta hasierako kontaktuak egiteko. Talde askotan, aurrerantzean ere taldeetan lan egiteko prestutasuna agertu zutenek izena eta kontaktua jaso zuten (4. Eranskinean jasota).

# ERANSKINAK

## 1. ERANSKINA: TALDE ERAGILEKO LEHEN BILERAKO AKTA

DEUSTUKO IKASTOLAKO GURASO ELKARTEAREN PROZESU PARTE HARTZAILEA 2023

### TALDE ERAGILEAREN 1. BILERAKO AKTA

<b>NOIZ:</b> 2023ko otsailaren 2a	<b>GAI ODRENA:</b>
<b>NORTZUK:</b> -Mikeldi; Koordinatzailea -Amaia; Ekintzen koordinazio orokorra -Jon; Kirol ekintzetako arduraduna -Deunore; Urtxintxako teknikaria	- Guraso elkartearen egungo egoeraren aurkezpena - Urtxintxako hasierako proposamenaren azalpena - Adostasunak - Datak zehaztea

#### 1. GURASO ELKARTEAREN ESKAERA

Oso denbora gutxitan egiteko lanketa bat da planteatzen dutena. Jakitun dira aspalditik, eta are gehiago pandemiak geroztik, parte hartzearena beti kolokan izan den gai bat dela eta batzuetan lanean eta zuzenean parte hartzen duten pertsonen ustea izan daitekeela gauzak ondo doazela, baina errealitatean horrela ez izatea eta parte hartzaile gehiago behar izatea edota parte hartzeko bestelako modu batzuk.

Bilerara bertaratu diren kideek guraso elkartearen daukaten rola zein den ere azaldu dute:


- Mikeldi: Koordinazioa darama. Bere lana indarra kanalizatzea eta egiten denari zentzu bat ematea dela komentatu du; gauzak antolatzea, aktak eramatea, jende berriari harrera egitea...
- Jon: Hainbat urte daramatza guraso elkartearen. Momentu honetan kirol ekintzetako arduraduna da
- Amaia: Ekintzen koordinazio orokorra darama
- Virginia ez da etorri, baina bere rol-a kultur arloko kontuak kudeatzea dela aipatu da

Badaude juntan dauden kideak, baina gero badaukate delegatuen sare bat ere. Eta kontatuz gero, agian 80 familia inguru irtetzen dira. Muinean 20 familia inguru egongo dira eta horiek erreleboa behar dutela.

Pandemiak asko eragin ziela komentatu dute eta bakoitzak momentua ikuspegi ezberdin batetik ikusi dezakeela (LH6-ko guraso batek ez dauka HH-n hasi berri den guraso baten ikuskera berdina), baina amankomunean atera daukatena errelebo beharra da.

Horretaz gain, belaunaldi berriek zer nahi duten hemetik 5 urtetara, zer eskaini behar dieten guraso elkarteak eta zer eman nahi duten eta nola egin nahi duten. Hori lortzeko metodologiari egokiena, parte hartzea dela argi daukate; helburu amankomun bat lortzeko eta ekarpenak egiteko.

lazitik ari dira, egoera honi buelta emateko aukerak bilatzen; agian kudeaketa modelo berri bat egotea, kanpoko pertsona bat kontratatzea guraso elkartearen inguruan dauden gauzak kudeatzeko (idazkaritza, ekonomia...) eta haren gastuari aurre egiteko ekintzen kuotak igotzea... hainbat gauza planteatu dituzte aurre egiteko.



Ahalegintzen dira jendeak bolondres parte hartzera animatzen, baina ez dutela modua aurkitzen eta momentu honetan ikusten dute guztiek parte hartu beharko luketela, nahiz eta inor ez behartu.

Parte hartzeko kanalak:

1. Junta
2. Asanblada urtean behin
3. 2013-ko dinamika abiatu zutenean, delegatu sarearekin hasi ziren eta kurtso bakoitzeko pertsona bi egon beharko liritezke; normalean batek hartzen du bi ikasturterako.
4. Badaude pertsona konkretu batzuk ekintza zehatzak eramateko;
  - a. aste kulturala urtean behin, maila bateko gurasoek kudeatu beharko lukete, Virginiaren koordinaziopean, baina beraiek sortuz dinamikak
  - b. Loteria 2 maila ezberdinek
  - c. Mendi martxa, urte bukaeran egiten den ekintza orokorra, beste bi kurtso
5. Beharra daukate baita, ekintza bat ateratzeko ekintza horren atzean guraso bat egon behar dela. Adibidez; saskibaloitako talde bat = delegatu bat (guraso bat), entrenatzailea hor dago, saskibaloitako arduradunak izan daitezkeenak, baina gero egon behar dira ekintza horren delegatuak. Berdin musikan... Bestela ez dira ekintzak zabalitzen.
6. Lehen jantokia ere eramaten zuten eta sama handia zen sukaldaria kudeatzea (kobroak, zerbitzua ematearena, bertan sukaldatzearena...), oso aurrekontu eta lan zein ardua hadia zen. 2019an udalaren osasun sailetik baldintzak betetzen ez zituztela esan eta obra egin behar zutela argudiatuz, beste gauza batzuekin batera, jantokiaren funtzionamendua aldatu behar izan zen eta orain cateringa daukate. Eusko Jaurlaritzarekin akordio batera heldu ziren obra bat egiteko eta teorikoki 2 urte barru, obra bukatzean berriz aldatuko litzateke.


Beraz, sarea egon badago eta bideak badituzte. Gauza asko kudeatzen dituzte; haurtzaindegi zerbitzua, udako udalekuak eragintzarekin batera. Sistema oso handia da, baina horren atzean ez daude pertsona asko. Bilerako kideen ustez behar dena da “mahaian ukabilkada” bat ematea eta parte hartzeko modu edota sistema honek ematen ez duela. Guraso elkarteak, zerbitzuak ematen dituen txiringito bat bezala ulertzen dute familia askok, baina argi utzi behar da ez direla enpresa bat.

Helburua: Jendea egungo egoeraz jabetzea, parte hartzen hastea edo erabakitzea zer nolako sistema eramango duten aurrera.

Hasierako proposamena: Bonba bat botatzea eta esatea “datorren urtean ez dago zerbitzurik, datorren urtean ez dago guraso elkarerik” jendea larritzeko eta mugimendua eraginda, erabakitzeko parte hartzea.

Beste proposamen bat asanblada orokor bat deitzea zen, bertan egoera planteatzea eta momentuan erabakitzea zer egingo den. Baina badakite asanbladatara 40 bat baino ez direla eta bertan bozkatuko luketeena ez litzatekeela gero jendeak, familiek, nahi edo beharko luketen hori. Azken urteetan asanbladetara arduraren bat hartu duten familiak baino ez dira joaten orokorrean.

Beste aukera bat, bonba bideratzea, baina kanal bat irekitzea nahiz eta “expres” izan gurasoen ikuspuntua zein den ikusteko eta forma bat eman, egituratzeko datorren ikasturtean beste ikuspegi batekin hasteko.



Kultura kontu bat dela azpimarratu dute, ez dela bakarrik kudeatzea nola egingo duten, baizik eta benetan ikustea ia belaunaldi berriek (hh-n sartu diren familiek) horrelako sistema baten sinesten duten edo nahiago duten kanpo zerbitzu bat kontratatzea kirol eta kultur ekintza guztiak kudeatzeko (dirua daukanak ordaintzea, bestea hor konpon eta guraso elkartearen pikutara). Beraz, helburua hemen belaunaldi berrien iritzia jasotzea ere bada.

Gora behera asko izan dituzte guraso elkarteetan, baina kontua da momentu honetan zuzenean parte hartzen dauden kideek ez dituztela belaunaldi berriak ezagutzen eta belaunaldi berriek ez dituztela beraiek ezagutzen ezta. Transmisioa egin behar da.

2013. urtean prozesu sakonagoa egin zuten, gaur egun ez dute gauza berri askorik ateratzea, baizik eta dagoen energia eta botatako bonbak eragiten duen mugimendua eustea. Beharrezkoa da elkartearentzat apirilean erabaki bat hartzeko gakoak izatea (jendea informatua egotea, ekarpenak jasotzea eta bideratzea).

Juntako kideek prozesu hau aurrera eraman ahalko luketela komentatu dute, baina estruktura bat behar dute, gako batzuk energia bideratzeko eta eztabaida emankorra izateko baliabideak behar dituzte. Egoeraren larritasuna helarazi eta jendearen hitza ezagutu nahi dute. Hori bideratzeko aurrekontu bat eskatu zuten, Urtxintxarena gustatu zitzaientzen, baina aurrekontua ere garestia iruditu zaie. Laguntza eskatzen digute Urtxintxari jendea erakartzeko eta batez ere “zelan konbentzitu” prozesuaren eta elkartearen bizirik mantentzearen garrantziaz, bestela erreko direla momentuan daudenak.

Hiru fase aurreikusten dituzte:

1. Bonba botatzearena eta eztabaidarako markoa irekitzea; egoera zein den.
2. Delegatu sarearen bilera egitea. Transmisioa egiteaz arduratzen dira, baina inplikaturik daude parte hartzen dutelako. Hala ere uste dute ez direla egoeraren larritasunaz ohartzen edo ez dituztela ondorioak aurreikusten. Beharrezkoa da lehen kurtoetako delegatuak bertaratzea eta informazio hori ematearekin batera, txosten bat ematea azaltzeko zein den egoera gero beraiek saretzeko. Hor esatea hilabete eta erdiko hausnarketarako tarte hartzen dugula parte hartzearen sistema eta ematen dituzten zerbitzuek inongo logikarik daukaten jakiteko eta apirilean erabaki bat hartzeko .
3. Familiekin dinamika informatzeko eta informazioa jasotzeko.
4. Barneko lana egitea saioetako ondorio eta ekarpenekin eta juntan ikustea zer erabaki hartuko den, beste asanblada bat deitu behar den edota junta barruan erabaki behar den... Horrek ere ahalbideratzen dituzte gero maiatzan eskaini behar dituzten zerbitzuak nola kudeatuko dituzten adibidez.

## 2. URTXINTXAREN HASIERAKO PROPOSAMENA (Atxikita)

Guraso elkarteak, alde ekonomikotik muga bat ikusten dute, aurrekontua handia dela iruditu zaie, baina proposamena ikusita, saioaren bat kendu daitekeela komentatu da. Hala ere, oraindik bidera irekita utziko dugu eta beharren arabera aurreikusitakoa ere moldatzen joango gara.

1. SAIOA: Bizi izandakoa bakoitzak bere emozioetatik ikustea edo jakitea familia bakoitzak nola ulertzen duen guraso elkartearen, zuzenki parte hartu izan badau eta denbora larroan kokatzea (gora beherak, gatazkak). 2013. Urteko prozesuak ere gaurkotatzen dituzten daukan ikusteko AMIA antzeko dinamika bat egitea. Ez oinarritzea gauza negatiboetan bakarrik,



- nahiz eta egungo egoera krudela izan, dituzten indarguneak edo familia bakoitza emateko prest dagoena ikustea eta hortik bigarren saioa prestatzea.
2. SAIOA, Ikastolako familiekin: Kanpaina familiak animatzeko eta nolako guraso elkarte nahi duten galdetuz proposamen irekiei leku uztea. Familiek zergatik parte hartzen ez duten ere jakitea da helburua
  3. BILERA barne mailan martxoa-maiatza bitartera zer egin daitekeen ikusteko, aurreko saioetako ekarpenek zer forma hartu dezaketen ikusten joateko. Foroak irekitzeko aukerak aztertzea (euskara, kirola eta osasun ohiturak, parekidetasuna...)
  4. IKASTURTE AMAIERAko bilera itzulpena egiteko

### 3. ADOSTUTAKOAK:

#### - KOMUNIKAZIO KANPAINA:

Egia da jendea positibotik animatzen baldin baduzu, jendea ez dela izutzen, baina egoera azaldu behar zaiela komentatu da.

“Zelan ikusten dugu hemendik 5 urtera guraso elkarte?” “norantz joan nahi dugu?” izan daitezke galdera orokorrak marko bat planteatzeko. Argi esan behar zaio jendeari guztion artean erabaki behar dutela, kontziente izaten zeintzuk diren beraien indarrak, zelako guraso elkarte eta zerbitzuak eman nahi dituzten, zelako ekarpenak egin nahi dizkieten komunitate horri (bakoitzak ahal duenetik eta bere esparruan).

Jendea alertan jarri behar da eta eragin nahi duen kontestua argi utzi behar diegu, baita prozesuak zein ibilbide izango duen ere.

Kartelak jarri daitezke zuzenean familiei zuzentzeko. Mikeldiren proposamenak: “datorren urtean haurtzaindegia egotea nahi duzu?, zure burua ikusten duzu... -etan?, X-tan parte hartzera animatuko zinateke?...”

#### - AURKEZPEN DOKUMENTUAK:

Dokumentu bat beharko litzateke guraso elkarte zer den, zenbat pertsona dauden, zenbat gauza egiten dituen... jendeak zer dagoen ikusteko.

Beste dokumentu bat egitea prozesuaren helburua edo asmoa zein den azalduz. Dokumentu hau delegatu sareari banatuko zaio gero zabalpena egin dezaten.


#### - FAMILIENTZAKO INKESTA PARTE HARTZEAREN INGURUAN:

Denbora gutxi dago taldekako dinamikak egiteko eta inkestak familia guztietara heltzea ahalbidetzen digu.

Indarra eman inkestari, jendeak zergatik ez duen parte hartzen ikusteko eta parte hartzeko behar duten hori zer den ikusteko (kontziliazioa, hizkuntza...). Familia baten baino gehiagoren kezka da euskara ez jakitearena, beraz, erantzunen arabera saioak moldatu beharko dira eta hainbat atal elebidunak egin.

#### - DATUAK JASOTZEA:

Martxoa aurretik familien saioa bukatuta egon behar dela eta datu batzuk jasota izatea bai inkesta bidez, bai egindako dinamiketatik jasotakoak etab. ondorio batzuk ateratzeko. Txosten



bat eratzea baino, ekarpenak etab. Jasotzea izango litzateke egin beharrekoa. Talde eragileko kideak ere saioetan egongo direnez, informazioa zuzenean jasoko lukete eta ideia bat egiteko gai izango liritezke, baina nahiago dute Urtxintxak dokumentu batean jasotzea apirilerako.

- MALGUTASUNA:

Apirilean erabakiak hartzeko momentua heltzean, erabakiko lukete beste saio kolektibo bat egitea edota bertan bukatzea hurbiltzen diren familien arabera.

#### 4. ZEHAZTUTAKO DATAK:

1. Komunikazio kanpaina
2. Delegatu sarearen saioa: Otsailak 22, asteazkena, 18:00etan 116 gelan

##### Helburuak:

- Prozesuaren egitura azaltzea
- Parte hartzearen garrantzia azpimarratzea
- Azalpen dokumentua banatzea gero beraiek geletako familiei azaltzeko (egutegia, helburuak, datuak, Guraso elkarteak zer egiten duen, zenbat familia biltzen dituen...)
- Delegatuek beraien artean hartu emana izatea

##### Eginbeharrak:

- Inkesta egun horretarako diseinatuta egon behar da
  - Dokumentua eratuta bertan banatzeko
  - Parte hartzearen inguruko dinamika bat planteatzea (“Nola ikusten duzu zure gelako parte hartzea?”)
3. Familientzako inkesta: otsailak 23an ireki eta martxoak 1ean itxi familien saioaren aurretik datuak izateko.
  4. Familien saioa: Martxoak 6 17:30etan jantokian. Haurtzaindegi zerbitzua jarriko da.
  5. Talde eragilearen bilera martxoak 14, 18:00etan. Junta kideak ere gonbidatuko dira.

## 2. ERANSKINA: FAMILIA AKTIBOEN SAIOA

DEUSTUKO IKASTOLAKO GURASO ELKARTEAREN PROZESU PARTE HARTZAILEA 2023

### FAMILIA AKTIBOEN SAIOAREN AKTA

<b>NOIZ:</b> 2023ko otsailaren 22a	<b>GAI ODRENA:</b>
<b>NORTZUK:</b> - Talde eragileko kideak; Mikeldi, Amaia eta Jon - Junta kideak - Delegatu sareak - Familia aktiboak - Urtxintxa Eskola; Galder eta Deunore	- Guraso elkartearen egungo egoeraren aurkezpena - Urtxintxaren aurkezpena eta saioaren ibilbidearen azalpena - Talde txikietako lanketa - Ondorioen aurkezpena - Agurra eta parte hartzerako gonbidapena

#### 1. AURKEZPENEA

Mikeldik, parte hartzeko koordinatzaileak, eman dio sarrera gaurko saioari alarma batekin gatzela esanez, hortik SOS GURASO ELKARTEA lelotzat daukan kanpaina aurkeztera sartu da. Urtxintxa Eskolarekin batera planifikatu dena, parte-hartze kontzeptura itzultzea da eta, batez ere, elkartearen dagoen kudeaketa ereduaz eta dituen zerbitzuez hausnartzea, denboran jasagarria den edo ez ikusteko eta aurrerantzean nola izan daitekeen planteatzen hasteko.

Saio honetara deitutako jendea mezu horren igorpenaren parte aktiboa izatea nahi da. Saiora bertaratutakoak delegatu sareko kideak eta guraso elkartearen aktiboki parte hartzen duten pertsonak izan dira.

Ikastolako familiek argi ikusi behar dute zerbitzuak emateko sistema hau ez dela kudeaketara bideratzen den enpresa baten kontua, baizik eta gurasoen ahaleginen bitartez bideratzen direla. Eta parte hartzeko eredurik ez badago, ez dela denboran eutsiko. Hemen planteatzen den galdera honakoa izan daiteke; Nolako Guraso Elkarte nahi dugu 5 urte barru?

(Mezua helarazteko eskuorri batzuk banatu ditugu bertaratu direnen artean eta hurrengo egunean bertan eskolak mailing bidez zabalduko die gainontzeko familiei. Bertan gaiari lotutako galdetegia betetzeko sarbidea ere agertzen da.)

Urtxintxa Eskolaren aurkezpen txiki bat ere egin da; trebakuntza eskaintza zabala daukala eta parte hartze arloan ere horretan adituak eta arituak garela. Eta zuzen ere, honakoa bezalako proiektu eta prozesuak garatu eta dinamizatzen ditugula.

Saioari hasiera emateko, argi utzi nahi izan dugu familiei zer nahi duten galdetze hutsa ez dugula parte-hartze bezala ulertzen. Elkarrekin Guraso Elkarte bezala zer behar dugun pentsatzea izan daitekeela abiapuntua, batera eraikitzen ikasten hasteko. Hau da, zerbaitetan parte hartzetik zerbaiten parte izatera pasatzea.

Diseinatu dugun prozesua oso laburra eta arina izango da, nahiz eta eztabaida sustatzeko dinamika intimoago eta aberasgarriagoak biltzen dituen prozesu luzeago bat egitea gustatuko litzaikekeen, ez da posible izango. Junta gisa, apirilean Guraso Elkartearen etorkizunari buruzko erabaki bat hartzeko ahal beste informazio bildu nahi da; zein jardura eskaini nahi diren datozen urteetan, nola kudeatuko diren, nor egongo den horren kudeaketa batzordeetan...





## 2. TALDE TXIKIETAKO LANKETA

Guztira 27 kide bertaratu dira. 4 taldetan banatu ditugu dinamika bat egiteko.

1. Taldea: 5 emakume + 2 gizonezko
  2. Taldea: 4 emakume + 2 gizonezko (emakumeetako batek euskaraz kili kolo) (Mikeldi egon da talde honetan)
  3. Taldea: 6 emakume + 2 gizonezko (emakumezko 2 erdaldunak) (Jon egon da taldean)
  4. Taldea: 4 emakume + 2 gizonezko (Amaia egon da taldean)
- 2 haur egon dira gelan, beraien kabuz jolasten

Lanketa honen helburua Guraso Elkartearen inguruko hausnarketa eta elkarrizketa askea sustatzea izan da, bakoitzak nahi eta behar duena adierazteko aukera izateko.

Hala ere, hausnarketa bideratzeko lagungarria izan daitekeen galdera sorta banatu diogu talde bakoitzari. Honakoak izan dira atalka planteatutako galderak eta jarraian taldeek aktan jasotako ekarpenen taula.

1. **Elkartearikiko atxikimendua:**

- Nola baloratzen duzu GE-arekiko izan duzuen atxikimendua?
- Aurrera begira, zuen atxikimendua sendoagoa izatea nahiko zenukete?
- Zer beharko zenukete GE-arekiko lotura sendoagoa izateko?

2. **Ibilbidea eta ekarpena:**

- Baliagarriak egin zaizkizue azken urteetan GE-tik bideratutako zerbitzu eta jarduerak?
- Horiek antolatzeke eredu egokia al da?
- Beste formaturen bat proposatuko zenuke?
- Zer behar du GE-ak?
- Zeintzuk izan beharko liriateke hurrengo erronkak? Nola bideratu?

3. **Funtzionamendua:**


- Ondo ezagutzen al duzue GE-aren funtzionamendua?
- Funtzionamendu horretan non ikusten zarete zuek? Ardura gehiago hartu beharko zenituzkete?
- Botere harremanik antzeman al duzue?
- Zein ardura banatu behar dira GE-an lana ondo egiteko? Zein modutara?
- Zenbatero aldatu beharko liriateke ardura hauek?
- Funtzionamendu orokorrari dagokionez, zenbat bilera edo lan saio egin beharko liriatezke?
- Zein modutan jaso daitezke familien iritzia eta ekarpenak?

4. **Parte hartze aktiboa:**

- Zein ekarpen egiten dute familiek GE-an?
- Nola ulertzen dugu parte hartzea?
- Zer behar da familiek parte hartzeko?
- Zein baldintza behar ditugu parte hartzeko?
- Nortzuk parte hartu beharko lukete GE-an?
- Zein bide ireki beharko zenuke familian parte hartzea sustatzeko?



ELKARTEAREKIKO ATXIKIMENDUA	IBILBIDEA ETA EKARPENA	FUNTZIONAMENDUA	PARTE-HARTZEA
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ez dago atxikimendu askorik</li> <li>- Informazio falta somatzen dugu , ofiziala</li> <li>- Denbora falta atxikimendua sendoagoa izateko</li> <li>- Parte-hartze gehiagorekin erraztuko litzateke atxikimendua</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Baliagarriak dira GE-aren ekintzak eta zerbitzuak</li> <li>- Oraingo eredia %100 gurasoak kudeatuta: Ez dugu posible ikusten dauden erantzunkizunak kontuan hartuta</li> <li>- Erronka: GE-a benetan ezagutzea: - Erronka: Gurasoen arteko harremanak sendotzea jaien bitartez; Olentzero, Santa Ageda, mendi-martxa...</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Organigrama egokia da</li> <li>- Ondo funtzionatzen du</li> <li>- Proposamena: erantzunkizunak zatitu gelaka / kurtsoka</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ahal den heinean familiak parte hartzea ondo legoke</li> <li>-INFORMATU!!</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Askorik ez, baina agian ezjakintasunagatik</li> <li>- Zertarako behar da jendea?</li> <li>- Ze funtzio "postu" horietarako?</li> <li>- Agian aurreko arduradunak ekintzak edo eginbeharrak eskatutako betekizunak (zer egin den eta noiz) idatzita lagata, jendeak argiago izango luke zer egin behar den eta beldur gutxiago.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bai</li> <li>- Agian mantendu dagoena eta gauza berriak proposatu</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bai / Ez. Denetarik</li> </ul>	
	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zehaztu batzordeak: ¿Cuáles se quedan sin representación? – ONDORIOAK</li> <li>- Agrupar por intereses en la reunión 6 de Marzo</li> <li>- Publicidad de lo que se hace</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gero eta jende gehiago hobeto</li> <li>- batzorde bakoitzean gutxienez 3-4 pertsona egotea</li> <li>-ZALETASUNAK</li> <li>- Adina (seme-alabarenak)</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Parte-hartzea egiten badugu: Ikastola no sólo lo académico</li> <li>- LH-tik parte hartzea</li> <li>-Ongi etorri jaia antolatzea</li> </ul>



### 3. TALDE HANDIAN HAUSNARTUTAKOA

Taldeetan egindako dinamikan antzemandako beharretatik abiatuta, taldearen iritzi eta ekarpenen aurkezpen txiki bat egin da. Talde bakoitzak, talde txikian hausnartutakoa plazaratu du.

Hauek dira jasotako iritzi eta hausnarketak:

#### **ELKARTEAREKIKO ATXIKIMENDUA ETA PARTE HARTZEA:**

- Perfil eta ardura ezberdina duten pertsonak bildu dira eta aberasgarria izan dela ikuspuntu anitzak ikusteko. Batzuk erreta eta itota daude lan karga gatik, errelebo faltagatik etab. Eta beste batzuk aldiz errepikatzeko gogoekin.
- Familien ezjakintasuna asko errepikatu den gai bat izan da.
- Zalantza dago ia benetan irudikatzen den komunitatea, jendea prest dagoen elkarrekin parte hartzeko.
  - o Zein da beste aukera?
- Helburua parte hartzeko filosofia iraganetik berreskuratu eta etorkizun baterako finkatzea da eta ez bakarrik momentuko sua itzaltzea.
- Hezkuntza komunitateak eta parte hartzeak daukan garrantzia azpimarratu behar da hurrengo saioan.
- PROPOSAMENAK:
  - o Hurrengo saioara gaurkoan parte hartu duten familia berdinak baldin badaude, argi dago gauzak ezin dutela berdin jarraitu eta kanpo koordinazioa eskatu beharko dela.
  - o Jendeari parte hartzea erraztea, zer egin nahi duten eta ahal dituzten gauza edota eginkizun txikiak ematea.
  - o Gertuko jendea zuzenean animatzea, delegatuen beraien mailetako familien artean mezua zabaltzea eta gonbidatzea

#### **IBILBIDEA ETA EKARPENA:**

- Badago Guraso Elkarte zer den ez dakien jendea eta gauzak horrela ez dute kargu bat edo ardurarik hartuko zertara dedikatzen den jakin gabe.
- Guraso Elkartetik zabaltzen den informazioa "txapa" bat dela komentatu da, askok ez daukatela denborarik heltzen zaizkien mailak etab. Irakurtzeko.
- PROPOSAMENAK:
  - o Parkeetan elkartzen direnean ahalegina egitea talde txikietan komentatzeko, konfiantzaren bitartez hurbildu behar da jendea.

#### **FUNTZIONAMENDUA:**

- Funtzionamendua egokia dela, baina konpromezua daukaten pertsona kopuruekin heltzen baldin bada eta ardurak orekatuak baldin badira.
- Dagoena mantendu behar dela aipatu da.

- Gero eta burokrasia gehiago suposatzen duela; legea zurrunagoa da, erakunde edo elkarte bezala ere gero eta gauza gehiago eskatzen dituztenez zaila da jendea konprometitzea.
  - o Asko ez dira prest ikusten dirulaguntzak eskatu behar direlako eta papeleo kontuagatik. Baina momentu honetan pertsona bakarrak darama karga guztia.
- Mailaka egiten diren jarduerak (loteria etab.) egitera “behartzea”, ardurak hartzea.
- Ematen du “el agujero negro” dela eta behin ardurak hartzen dituen eta GE-ren funtzionamenduan sartzen dena ez dela berriz irteten.
- Diruzainak 3-4 pertsona izan dira eta idazkaria ez da zertan bakarra egon behar.
- Junta barruko sentsazioa da jendeak “paso” egiten duela. Hala ere berriz irten da ezjakintasunaren gaia.
- Euskara ez jakitea gehien erabiltzen
- PROPOSAMENAK:
  - o Rolak ondo zehaztea. Kargoen eta egin beharren twarek zerrendatzea eta familien artean banatzea. Dana **idatzita egotea** eta kronograma bat zehaztea.
  - o **Praktikari** bezalako laguntzaileak zehaztea.
  - o **Talde edo bikoteka** aritzea (gutxienez 3-4 pertsona egotea ardurak elkarbanatzen) funtzionamendua ikasteko, beldurrak kentzeko, ardurak gehiago hartzen joateko...
  - o Familien **perfilak ezagutzea** eta arlo ezberdinen inguruko esperientzia edo jakintza maila ardurak hartzeko, laguntza eskatzeko... jendea hartzen duen konpromezuarekin eroso eta seguru egoteko.
  - o **Zikloka ardurak jartzea**
  - o **Foroak sortzea**



### 3. ERANSKINA: FAMILIENTZAKO GALDETEGIEN EMAITZAK

DEUSTUKO IKASTOLAKO GURASO ELKARTEAREN PROZESU PARTE HARTZAILEA 2023

#### FAMILIENTZAKO GALDETEGIAREN EMAITZA OROKORRAK

##### FAMILIAK

- Erantzunak: Martxoaren 2an 152 pertsonen erantzunak egon dira.
- Generoa: Inkesta bete duten pertsonen ia %80a emakumezkoak izan dira
- Seme-alaba kopurua: %70ak bi seme-alaba ditu eta %64ak seme edo alaba bakarra
- Seme-alaben adina eta maila: LH3. Mailan dauden haurren gurasoenak izan dira erantzun gehienak, gainontzekoak nahiko orekatuak izan dira HH2-DBH 1.mailara arte. DBH1etik aurrera gero eta familia gutxiagok parte hartu dute galdetegian, batez ere azken bi kurtsoetan.

##### GURASO ELKARTEA

- Ezagutzea: ia %15ak bakarrik erantzun dute ez dutela Guraso Elkartearen ezagutzen. Eta pertsona batek erantzun du esanez iaz emandako hitzalditik bakarrik ezagutzen duela.
- Funtzioak: Hauek dira erantzun duten familien ustez, GE-ak dituen funtzioak:
  - Hezkuntza proiektuaren ekarpenak eta jarraipena egitea
    - Ikastetxeko zuzendaritzarekin harremana sor daitezkeen gatazkak eta aukerak kudeatzeko
    - Ikastolarekin batera, gure seme alabentzako kalitatezko hezkuntza baten alde laguntzea eta erabakiak hartzea
    - Haur eta nerabeen interes eta beharretatik abiatuta proposamenak egitea, subjektu aktibo bilakatuz
    - Ikastetxeko hezkuntza proiektua osatzea
    - Gure umeei dauzkaten beharrak eta ikastolak betetzen ez dituenak asetzeko (Erantzun hau asko errepikatu da)
  - Ikastolaren antolamenduaren kudeaketa bideratzea
  - Eskola herrikoa bultzatzea
  - Gurasoen lana eta interesa bideratu ikastetxean
    - Gurasoen parte hartzea ziurtatzea
    - Familiei informazioa helaraztea
    - Familien nahiak eta beharrak, eskolako organo gorenari helaraztea
    - Familiei beraiei seme alaben hezkuntzan inguruko iritzia eskatzea eta kontutan hartzea
    - Ikastola eta familien arteko zubi lanak egitea
    - Gurasoak ordezkatzeko eta denon onurarako erabakiak hartzea
    - Familien arteko harremanak sustatzea
  - Eusko Jaurlaritzaren kudeaketatik kanpo dauden eta ikastetxean egiten diren ekintzak edota jarduerak antolatu eta kudeatu
    - Eskolaz kanpokoak
    - Guraso eskola, familientzako prestakuntza, jardunaldiak edo tailerrak
    - Aste kulturala
    - Mendi martxa



- Loteria
- Kirolak
- Zerbitzuak eman
  - Hartzaindegi zerbitzua
  - Mediku aseguru
  - Jantokia

Erantzunen artean, Guraso Elkartek partekatutako dokumentazioak elkartearen betebeharrak eta funtzioak biltzen dituzenez, familiak horren inguruko informazioa badaukate. Hala ere, badaude GE-ren funtzioen inguruan ideiarik ez daukatela erantzun duten familiak ere. Honakoak dira jasotako erantzunak:

- Informazio faltagatik
- Ziur ez dakitela, baina uste dutela administrazioaz arduratzen direla
- Entzun dutenagatik deskontuak egiten dituztela zerbitzuetan
- Parte hartzea, baina ez dakit ziur nola
- Bat ere ez erantzun du pertsona batek

- BAZKIDETZA:


%87a Guraso Elkartearen bazkide da eta bazkide izatearen arrazoen artean, gehiengoak bat datoz seme alaben hezkuntzan inplikatzeko ezinbestekoa dela esatearekin, guraso elkartek horren lorpenen duen garrantziarekin eta familientzako onuragarria dela.

Familia batzuk ez dakite ziur bazkide diren edo ez eta badaude kuota ordaintzea eta kide izatea bereizten dituzten familiak ere, baita bazkide izatearen arrazoiak ez dakitenak ere.

Bestalde, badago ia %12 bat ezezkia erantzun duela, gehienak denbora faltagatik edota informazio faltagatik dela esan dute (ez dakitela nola bazkide izate zer egin behar den, haurrak nagusiagoak izan arte itxaron nahi dutela). Horretaz gain, honako arrazoiak ere eman dituzte:

- “Hicieron lo contrario de lo que se supone que tienen que hacer
- “Para que me saliera un poco más económico los paseos, pero la verdad no lo se, porque cuando me quise dar de baja me pusieron pegas como que todo me iba a salir más caro”
- “Porque no he tenido más información o no la he buscado y no sé hasta qué punto necesito ser miembro”
- “Se me requirió para una extraescolar, pensé que era optativo y mejoraba el precio pero al parecer era necesario.”
- “Falta de información nadie me informó de nada”
- “No lo hemos necesitado”
- Berandu egin genuen gure umearen inskripzioa ikastolan eta ez gaude zihur nola egin behar dogun alta.
- Al pagar el ampa cada año uno es miembro o no
- Ez dut planteatu

- KUDEAKETA: %72ak GE-aren kudeaketan parte hartzen duela adierazi du, baina erantzunetan gehiengoak ardurarik ez daukala esanda, datuak nahasiak izan daitezke. Funtzioak bete edo arduraren bat daukaten pertsonen artean, gehienak gelako delegatuak direla esan dute (10 erantzunetik gora), kirol eta ekintza baten ardura daukatenen artean, gehienek 3-4 urtez aritu izan direla edo jarraitzen dutela



komentatu dute, berdin junta edo kontseilu kideak. Esan genezake media 3-4 urte direla, nahiz eta badagoen 10 urtez ekintza baten ardura izan dueña, 8 urtez multikirolak koordinatu izan dueña, 12 urtez parte hartze ardura izan duena etab. Kasu puntualak direla antzeman dezakegu.

- PARTE HARTZEA: Aurreko galderaren erantzun oso antzekoak, ez dira galderak ezberdin ulertu.

GE-an parte hartzen ez duten pertsonen arrazoiak honakoak dira:

- o Denbora faltagatik %47<sup>a</sup>
- o Ez dakitelako nola parte hartu ia %16<sup>a</sup>
- o Familia kontziliazio arazoengatik %19<sup>a</sup>
- o Bestelako arrazoiaren artean; bikoteak parte hartzen duelako, euskara nibel bajuagatik, interes faltagatik (ia %3ak), elkar-tearekiko desadostasuna erantzun du batek, beste batzuk (ia %4ak)
- Orokorrean, Guraso Elkartean parte hartzeko **beharko luketen**aren inguruan honakoak izan dira gehiengo erantzunak
  - o Denbora
  - o Informazioa
    - Jakitea zehatzago non behar den laguntza
    - Zein funtzio, rol eta dedikazio dauden jakitea
    - Parte hartzeko baldintzak ezagutzea
    - Deitua izatea (bileren deialdiak etab) eta informazioa irisgarriagoa izatea
    - Nortzuk parte hartzen duten jakitea
  - o Motibazioa + jende gehiago animatzea
    - Gidaritza bat izatea
    - Eroso eta parte sentitzea
    - Ardura txikiak hartzen joatea
  - o Kontziliazioa
    - Hartzaindegi zerbitzua jartzea
  - o Gazteleraz komunikatzeko aukera izatea
    - “Más información y una invitación más abierta. Tengo la sensación de que las personas que participan son un grupo de gente del entorno de la ikastola (exalumnos) que se conocen de Deusto de toda la vida e incluso que son amigos, euskaldunes, y da la sensación de que gente como yo, que ni siquiera soy de Deusto, somos "extraños"
  - o Ikastolako zuzendaritza inplikatzeko
- Hala ere %18,4-ak ez duela parte hartu nahi erantzun du.

#### ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK


- Ezagutza eta erabilpena: 580ak GE-ak kudeatzen dituen eskolaz kanpoko jarduerak ezagutzen ditu eta erantzun duten familien seme alaben kopuru berdina (%80ak) GE-ak antolatu eta kudeatzen dituen eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzen du.
- Familiak:
  - o Familia bezala mendi martxan parte hartu izan dute gehienek. Batek erantzun du esanez parte hartzeko asmoa zeukala baina talde itxia zela.
  - o Hitzaidiren bat

- Herri kirolak
- Udalekuak
- Aste kulturala
- Ihauteriak
- Berriz agertu da informazio faltaren kontua; ez dakitela zein jardueretaz ari garen edota ez zaiela honen berri ematen: “No, ni siquiera sé si se ha organizado alguna este curso, desde que mi hijo está en la ikastola. Me da la sensación de que el medio de comunicación es el boca a boca, entre los que se conocen de toda la vida, como he mencionado antes.”.

## ZERBITZUAK

- Asebetetze maila: %85ak erantzun du GE-aren zerbitzuek beraien familien beharrak asetzen dituela.
- Familien beharrak:
  - Txikientzako zerbitzu gehiago
  - Nerabeentzako jarduera gehiago (14-16 urte)
  - Udan udalekuekin ez dute nahikoa
  - Asteazkenetan oso goiz irteten direla
  - Asteazkenetan, jantokian geratzen baldin badira, ondorengo zerbitzu bat behar dute 17ak arte eta ez 16:30ak arte.
  - Jantokia berreskuratzea; gaur egun ez da GE-ak kudeatzen duen zerbitzua
  - Psikologoa berreskuratzea behin baino gehiagotan irten da. “Garai batean psikologo bat zegoen GE-ak kudeatzen zuena eta eskolarekin koordinatuta. Gaur egun Osakidetzako osasun mentalaren zerbitzu negargarriak nola dauden ikusita, berreskuratuko nuke figura hori. Denontzat litzateke onuragarria”
  - Gabonetako eta aste santuetako egonaldiak
  - Ingelesa eta frantsesa
  - “Arratsaldeko aukerak ondo daude, baina guri gustatuko litzaiyuke jarraian izatea, klasetik atera eta monitorearekin jarraian joatea kirola/musika egitera”:
  - Egutegi normala ez duten egunetan, kontziliazio zerbitzua eskaintzea (inauterietan ostiralean lehenago ateratzea)
  - Errefortzu akademikoa
  - Kirol eskaintza gehiago; tenisa eta eskalada
  - DBH 3-5 arte eskolaz kanpoko jarduerak
  - Hizkuntza aldetik; “Más información en castellano a la hora de reuniones o boletines informativos”
  - Udarako ekintza gehiago, uztaileko goiz eta arratsaldeetan batez ere.
  - Irakasleekin bilerak antolatzea oso zaila da, eskaintzen dituzten ordu bakarrak lan orduak dira, agian gurasoei bilera hauek errazteko moduren bat aurki liteke.
- Zerbitzuen kudeaketa: Erdiak baino gehiago ez daki nola eta nork kudeatzen dituen zerbitzu hauek.
- Jasangarritasuna: Beste behin, agerian geratzen den gaia da ezjakintasunarena eta informazio faltarena. Izan ere, %57a baino gehiagok ez daki une honetan parte hartzen duten bolondresekin jarduera hauek eskaintzea jasangarria den ala ez. %27ak argi dauka





ezetz eta gainontzekoen artean “jende gehiagoren inplikazioa behar da”, “nazkatzen direnean akabo” bezalakoak agertu dira.

- Familiaren inplikazioa: Hemen, argi daukate, %80ari garrantzitsua iruditzen zaio seme alaben hezkuntzarekin lotutako zerbitzuak eta jardueran familiek kudeatzea.
- Enpresa bat kontratazea ere proposatu du familiaren batek, honen aurrean, %30-a bakarrik legoke prest kostu ekonomiko handiagoa izateko.

FAMILIEN SAIOAN PARTE HARTZEA
-------------------------------

Momentuz 53 pertsonak konfirmatu dute martxoak 6ko asistentzia eta beste 64 familia daude oraindik ez dakitenak. Etortzekoak direnetatik 29 pertsonak haurtzaindegi zerbitzua beharko luketela adierazi dute.